hiruka

168. zenbakia
2021eko otsaila

Pobrezia energetikoa

Beroa ordaindu ezin denean

EUSKARAREN LAGUNA SALTOKIEN MAPA. BILATU ZURE ESTABLEZIMENDUA!

Animatu zaitez euskaraz egiten zure herriko denda eta tabernetan! Sorpresa ederra hartuko duzu, uste baino gehiagotan artatuko zaituzte euskaraz!

MAPA COMERCIO AMIGO DEL EUSKERA. ENCUENTRA TU ESTABLECIMIENTO

¡Valora el esfuerzo que realiza tu tendero/a y hostelero/a habitual para que el euskera esté presente en su negocio!

www.getxo.eus/euskararenlaguna



Euskararen laguna saltokia

Nahi baduzu, euskaraz

Comercio amigo del euskera

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Getxo bizi ezazu

Aurkibidea

4 Puntua eta kontrapuntua

5 Erretratua: Iraia Collado

6 Pobrezia energetikoari nola egin aurre

14 Hizkuntzaren zalantzategia

15 Gatz-ozpinetan

16 Historiaren ganbara

17 Naturaren behatokitik

18 Hirudika: Zura eta ura

24 Mundukatuak: María Soares

25 Lehen/orain eta Uribitakora

26 COVID iraunkorra laguntza-taldea

30 «Portuetan zuria da nagusi orain; baztertu da aniztasuna eta tradizioa»

31 Eskualdeko erroten historia bildu du Alberto Díezek

32 Zinez diot eta Irakurrian

33 Musikhariak: Txekoslobako

34 Leioako waterpolo nesken taldea, Ohorezko Mailara

35 «Hiru mirari gauzatu ditugu Dakar horretan»

40 Hirukira Olgetan

42 Faceguk: Nola ligatu pandemia garaian?

6 Pobrezia energetikoagaz amaitzeko estrategiak

18 Zuraren galeragaz kolorea galdu dute gure portuek, baita identitatea ere

26 COVID iraunkorraren gaitzari aurre egiteko laguntza-taldea sortu dute

34 «Gure asmoa ez da goraino heltzea»

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Julen Nafarrate, Asier Barruetabeña, Eunate Muruaga, Izei Azkue, Iñaki Libano, Xabier Buenetxea, Iñigo Astiz, Nerea Falagan, Itxaso Paia eta Joseba Santxo.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo bizi ezazu · Leioa Udala-Ayuntamiento Euskara Zerbitzua · Erandio Elizateko Udala · Berangoko Udala · Plentziako Udala · Gorliz Udala · Urduliz Udala · Barrikako Udala · Lemoiz Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Euskalkiak vs. Euskara batua

ITXASO PAIA RUIZ Kultur teknikaria

Hiru urte igaro berri dira sare sozialak futbol zelai bilakatu zirela Iñigo Martinezen idatzizko golaren eraginez. Bere herrian erositako botak erabili zituen gola markatzeko, eta, horrek, hirietako kirol gune komertzialei min handia ekarri die, antza. Euskara batua zelaiaren ertz batean eta, euskalkiak, parean. Zaleak inguruan txistuka, txaloka, kantuan zein oihuka, betiko eran. Partidaren amaieran markadoreak huts eta huts, eta Twiterrek putz eta putz. Iñigo Martinezi «Analfabetoa euskaraz» deitu zioten arte ez nuen jakin euskal kirol taldeetan jokatzeko euskarazko titulaziorik eskatzen zitzaienik jokalariei. «Kaixo Iñigo, hurrengo denboraldirako zurekin kontatu nahiko genuke, hori bai, EGAren kopia bidali diezagukezu?».

Agian erreferenduma antolatu beharko genuke Euskal Herrian: nola mintzatu behar dira gure kirolariak? «Halako mezu baterako erregistro formala (batua) lagunartekoa baino egokiagoa da» diotenak, nor dira ba erabaki ahal izateko norbanako batek zein hizkuntzatan eta nola azaldu behar dituen bere adierazpenak bere sare sozial propioan? Behin euskal kirolari batek euskara erabili eta DANBA! Hitzaren kirola bertsolaritza zela uste nuen nik.

Mikroipuna

JOSEBA SANTXO URIARTE Filologoa eta idazlea

Giroa itogarria zen lau horma haien artean. Eskrimalari batzuk ezpata hotsean ari ziren hil ala biziko borrokan. 'Txertoa' irakur zitekeen euren floreteen ahoetan. Disneyren ahate ezagunak (Scrooge McDuck-ek) pistola kargatua zerabilen airean mehatxuka. Birus itxurako lanpara biraka zebilen zoro-zoro, distira itsugarriak noranahi barreiatuz. Eta okerrena, Fermaten gelako hormak mugitzen ari ziren, gelaren barrunbea estutzen. Ni nentzan oheak ere dar-dar egiten zuen nabarmen. Laster hasi ziren gelako altzari eta edergailuak erortzen eta suntsitzen, bai eta dolare geldiezin haren erdirantz batzen ere, zarata gorgarriak eraginez. Paretan erdi zintzilik lotzen zen azken margolaneko paisaiari benetako euria zerion, kaos haren larrigarri. Orduan nire begiek espantuz ikusi zuten zelan amiltzen zen zutik zirauen apal bakarreko azken liburua anabasa zentripeturantz. Jauzi egin nuen ohetik, barne indar batek bultzatuta, eta liburuari airean oratu nion. Bizkarrez jausi nintzen talo informe erraldoiaren erdian, ur zipriztinek aurpegia bustitzen zidatela, eta errediza birrinketaren harrabotsak belarriak zulatzen zizkidala. Orduan liburua ireki nuen, eta haren orrien artean desagertu nintzen, *enparedadore* eroaren muturraren aurrean.

Puntua eta kontrapuntua **Pobrezia energetikoa**

Fakturen dantza

Dena pribatizatu zuten, eta gero batzuk ezin etxea berotu gauero. Beste batzuk etxe ta poltsikoa bero. Ez al zen konponduko, nahiko «errez» edo, beti prezio bera finkatu ezkero?

IMANOL URIA ALBIZURIA
Algorta

Mundua konpontzeko duzu esperantza, baina lukurreriak agintzen du antza eta ezin konpondu daukazun zalantza. Ondo finkatu dute fakturaren dantza: termometroak behera, faktura gorantza!

ARKAITZ GOMEZ AGIRRE
Getxo eta Bilbo

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Iraia Collado Bilbao Simon Otxandategi dantza-taldeko presidentea

«Gazteak euskal dantzetara erakartzea da gure erronka»

Berangoko Simon Otxandategi dantza-taldeko presidente berria da Iraia Collado berangoztarra. Ilusioz eta arduraz jaso du kargua.

TESTUA: **JULEN NAFARRATE** • ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Ez dakizu zenbat botatzen ditudan faltan erromeriak». Berbak Iraia Collado Bilbao berangoztarrarenak dira, baina seguru nago batek baino gehiagok bat egingo duela adierazpen horregaz. Colladok orain dela urtebete hartu zuen Berangoko Simon Otxandategi dantza-taldearen gidaritza, Iñaki Gonzalezen lekukoa jaso ostean: «Iñaki 50 urtez izan da zuzendaria, eta ardura handia sentitzen dut, baina, zorionez, lantalde oso txukuna daukagu, eta dena adosten dugu denon artean».

Urte zaila izan du Colladok zuzendaritza-lanetan hasteko. Kargua hartu eta gutxira heldu zen COVID-19 gaitzak ekarritako osasun-krisia; ondorioz, txistu-hotsak isildu egin ziren Elexaldeko lokalean: «Iazko martxotik ez dugu entsaiorik egin, linbo moduko batean gaude: ez gara ariketa fisikoa, ez gara klase gidatua... Gure kasuan, araudia ez dago batere argi».

Emanaldiak ere bertan behera utzi behar izan dituzte. Aratusteetan, berbarako, oraindino ez dakite Maskaradak egin ahal izango dituzten ala ez: «Aukera dagoenean, prest egongo gara plazara irteteko». Beno, eta ez bakarrik plazara: «Bai, tabernetara ere bai!». Atzerrira joateko gogotsu ere badaude. Urteotan askotariko ikuskizunak egin izan dituzte atzerriko hainbat txokotan, hala nola Grezian, Senegalen, Austrian... «Atzerrian gaudenean beti aldarrikatzen dugu Euskal Herrikoak garela».

Zuzendaritza lanetan berria bada ere, 28 urteko berangoztarra aspaldi hasi zen fandango eta arin-arinetan: «Hiru urte izango nituen taldean hasi nintzenean». Eta hori da, hain zuzen ere, euren, taldeko kide gutzien, erronka nagusia orain: belaunaldi berriak euskal dantzetara lotzea. «Ezinbestekoa da transmisioa ez etetea, gazteak euskal dantzetara erakarri behar ditugu», aldarrikatu du berangoztarrak. ◀

Pobrezia energetikoagaz bukatzeko estrategiak

Asko dira elektrizitatearen eta gasaren fakturak ordaintzeko arazoak dituzten familiak; gainera, pandemiaren ondorioz, ezintasun hori areagotu egingo dela pentsatzeko arrazoiak daude. Erakunde publikoek hainbat diru-laguntza ematen dituzte horri aurre egiteko, baina ez litzateke zentzuzkoagoa izango merkatua eta energiaren kontzeptua bera aldatzea?

ANDER ZARRAGA ▶

Urtarrilaren erdialdean alarma guztiak piztu ziren elektrizitatearen prezioak maximo historikoak hartu zituenean; Filomenaren hotzaldi betean, batez beste, fakturak % 30 garestitu ziren. Herritarren eta erakundeen haserrea berehalakoa izan zen, eta hainbat lagun kalera atera zen garestitze hori salatzera. Handik aste gutxira, baina, energia eolikoak izugarrizko gorakada izan zuen, eta prezioek behera egin zuten, ia lehengoratzeraino. Dena dela, hainbat familiak pairatzen duten pobrezia energetikoaren mehatxua ez da berria, gaur-gaurkoz denon ahotan egon den arren; izan ere, igoera horrek agerian utzi du zein babesgabe dauden herritarrak, merkatuen gorabeheren menpe.

Arartekoaren arabera, baliabide energetikoen faltak eta tenperatura hotzetan luzaro bizitzeak pertsonen osasun egoera kaltetzen du: arnas-gaixotasunak izateko aukera ugaritu egiten da, eta artritis edo erreuma bezalako gaitzak larriagotu daitezke, besteak beste. Zaurgarritasun egoeran dauden familien diru-iturrien zati handiak fakturak ordaintzeko bideratu behar izateak ere egoera eskas hori areagotzea dakar.

Bestalde, zaurgarritasun energetikoa kontzeptu dinamiko gisa ulertu behar da, familiei eragiten dizkieten barne- eta kanpo-faktoreak askotarikoak eta aldakorrak izan daitezkeelako: fakturaren prezioa, familiaren egoera momentu jakin batean (gaixotasunak, jaiotzak...) edo kanpotik datozen eragileak; pandemiarena da, gaur egun, adibiderik argiena.

COVID-19aren ondorioz, denbora gehiago ematen ari gara etxean sartuta, eta, orain, inoiz baino lan gehiago egiten dugu etxetik. Pobrezia energetikoaren testuinguruan, horrek esan nahi du energia-behar gehiago beharrezkoa dela etxea berotzeko eta ordenagailua bezalako gailuak erabiltzeko; ondorioz,

fakturaren prezioak gora egitea ekidinezina da.

FAKTURAK PAGATU EZINIK. Azkenengo datuen arabera, EAEko 72.666 familiak (totalaren % 8k) aitortzen dute argindarra edo gasa ordaintzeko arazoak dituztela. Hau da, hamabi familiatik batek etxea berotzeko arazoak ditu: guztira, 161.576 pertsona; EAEko biztanleriaren % 7,4, hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak argitaratutako datu hori 2019ko inkesta baten emaitza da, COVID-19aren pandemiaren aurrekoa. Esandakoa kontuan hartuta, pentsa daiteke etxeetako elektrizitate-kontsumoak gora egin duela azkenengo hilabeteetan, eta, ondorioz, etxebizitza modu duinean edukitzeko aukera izan ez dutenen kopuruak ere gora egin duela. Horiei gaineratu behar zaie krisiaren ondorioz langabezian geratu diren edo diru-iturriak galdu dituztenak.

Gurutze Gorriak laguntza eskaintzen die arazo hori duten familiei, fakturak ordaintzeko diru-laguntzak emanda, etxea isolatzeko kitak banatuta eta efizientzia energetikoaren inguruko ikastaroak eskainita. 2020an, EAEn, 1.415 familiek jaso behar izan zuten erakunde horrek banatzen dituen laguntzaren bat edo beste; Uribe Kostan, zehazki, 101 izan ziren jan edo etxea modu egokian berotzearen artean aukeratu behar izan duten familiak. Hala ere, datu hori 2019koa baino zerbait baxuagoa da, urte horretan 1.557 familiek jaso baitzuten laguntza hori. Hala ere, datu horrek ñabardura bat behar du, Maitane Boulandier Bizkaiko Gurutze Gorriko Bitartekotza idazkariordeak adierazi duenez: «Pandemia garaian enpresa energetikoek ezin izan dute hornikuntza-mozketarik egin, Espainiako Gobernuak legez hala debekatu zuelako». Dena den, horrek errealitatea estali besterik egiten ez duela dio Boulandierrek: «Oraindik ez ditugu pandemiaren benetako eraginak ikusi, eta ez bakarrik pobrezia energetikoaren testuinguruan, bizi-mailan ere eragina izango duela uste dut».

FLOTAGAILUAK INSTITUZIOETATIK. Gurean, udal eta erakunde asko dira arazoak dituzten familiei laguntzak ematen dizkietenak; kasu batzuetan, zuzenean faktura ordaintzeko bonuak dira, eta, beste batzuetan, etxebizitzetako eraginkortasun energetikoa hobetzeko proiektuak finantzatzen dira.

Sopelan, berbarako, Udalak 15.000 euroko diru-partida bideratu zuen iaz elektrizitatearen hornikuntza ordaintzen laguntzeko. Urte berean, Leioako Udalak ere 60.000 euro gorde zituen arazo horri aurre egiteko. Eusko Jaurlaritzak ematen dituen eta udalek kudeatzen duten Larrialdi Sozialetarako Laguntzen % 15 energia-pobrezia arintzeko bideratzen da, eta, horien bitartez, hartzaileek 900 euroraino jaso ditzakete urtean.

72.666
familiak aitortu dute gasa edo elektrizitatea ordaintzeko arazoak dituztela.

%75
emakumeak dira laguntzak jasotzen dituztenak.

Orokorrean, laguntzok jasotzen dituztenen profila urtez urte errepikatzen den arren, iaz, pandemiaren ondorioz, langabezian dagoen edo diru-sarrerak galdu dituen jende gehiago hurbildu zaiela aitortu du Boulandierrek. Hala ere, normalean laguntza mota hori jasotzen duten gehienak emakumeak direla azpimarratu du: % 75, hain zuzen ere. «Bere ardurapean familia duten emakumeak dira. Umeakaz eta bestelako familia-kargakaz datozen emakume gazteak dira gehienbat», zehaztu du. Baina laguntzok «flotagailuak»

Pobrezia energetikoak pertsonen osasunean ez ezik, zaurgarritasun egoerak ere okertu ditzake.

besterik ez dira, familia askoren kasuan arazoa kronikoa bilakatu delako. Arartekok berak adierazi duen moduan, gaur egunera arte administrazio publikoa ez da gai izan garatzeko pobrezia energetikoari aurre egiteko estrategia global bat.

ENERGIAREN GARESTITZEA. «Zaurgarritasun energetikoa ikusezina da gizartearentzat, neurri handi batean pobrezia orokorraren atzean ezkutatzen delako». Hori uste du Macarena Larreak, Orkestrako ikertzaile eta energia gaietan adituak. Bere iritziz, horrek baldintzatzen du arazoari aurre egiteko tresnen eraginkortasuna. Larrearen aburuz, kontsumitzaileok ari gara ordaintzen enpresek energia berriztagarrietara egiten ari diren trantsizioa, eta horrek energiaren prezioa igo du. Ikerlariaren esanetan, energia-eredu jasangarri batera igarotzeko kolektibo zaurgarri horiek kontutan hartu behar dira. Baita Europako beste herrialdeetako esperientziak erreplikatu ere, «beharrezkoa izango da jarrera proaktiboa hartzea arazoa nozitzen duten taldeak bilatu eta identifikatzeko».

«Zaurgarritasun energetikoa ikusezina da gizartearentzat, neurri handi batean pobrezia orokorraren atzean ezkutatzen delako»

MACARENA LARREA
IKERTZAILEA ETA ENERGIA GAIETAN ADITUA

MERKATUAREN OLIGOPOLIOA. Orain arte, hiru multinazional handiren (Endesa, Iberdrola eta Gas Natural Fenosa) esku egon da elektrizitatearen ekoizpena, garraioa eta merkaturatzea. Enpresa horiek merkatuaren joan-etorriak gidatu dituzte, eta legedia haien neurrira egin dute; enpresa horietan aholkulari gisa jarduten duten politikari ohien zerrenda luzeari begiratzea besterik ez dago joko horretaz ohartzeko.

Oligopolio horregaz bukatzeko adibidea dugu gurean: Goiener kooperatiba. Irabazi asmorik gabeko elkarte horren filosofia da energia-iturri berriztagarriak eta merkaturatzeko tresnak baliatuta herritarren eta udalengandik hurbil egotea. Horrela, zaurgarritasun energetikoa duten familien kontsumoa hobetu gura dute, laguntza zuzena emanda. Iturri merkeenak berriztagarriak direla diote, eta hainbat baliabide daude pobrezia energetikoa pairatzen dutenengatik hurbil jartzeko. Horretarako, autokontsumo kolektiboak eta, batez ere, Energia Komunitate Berriztagarriak baliabide bikainak direla diote Goienerrekoek.

Beste adibide bat da Bartzelonan topa daitekeena. Bertan, energia-merkaturatzaile publikoa sortu zuen Udalak 2018an, eta, horri esker, iturri berriztagarrien bidez sortutako elektrizitatea eskaintzen die herritarrei. Getxon ere, antzeko zerbait egiteko proposamena egin zuen duela gutxi EH Bilduk. Horren arabera, udalerrian merkaturatzaile bat sortzeak zerbitzua hobetuko luke, energia berriztagarrien aldeko apustua egingo litzateke eta zaurgarritasun energetikoa pairatzen dutenentzako ere mesedegarria izango litzateke.

Aurreko guztia kontutan hartuta, ondoriozta daiteke pobrezia energetikoa konpontzeko arazoa konplikatua dela, aldagai asko daudelako sartuta, eta, kasu askotan, arazoa kronikoa bihurtu delako. Trantsizio energetikoak eta iturri berriztagarriek aukera ezin hobea dira horri buelta emateko, diru-laguntzek eta interbentzio puntualek ez dietelako arazoari sustraitik heltzen. Macarena Larreak ere argi dauka: «Eskain ditzakegun txekeak fakturak ordaintzeko balio ditzakete, baina, kolektibo zaurgarrienen etxeetan eraginkortasun energetikoa hobetzen ez den bitartean, pobrezia energetikoaren arazoa ez da desagertuko». ◂

Getxo Osakidetzako erabiltzaile baten salaketa

«Anbulantzietan ez dira segurtasun-neurriak bermatzen»

Imanol Erdaide Eskibil getxoztarrak deitoratu du Osakidetzaren anbulantziak «kutsadura-foku» bilakatzeko aukera asko dagoela, ez delako segurtasuna bermatzen.

COVID-19aren pandemia hasi eta gutxira, Osakidetzako anbulantziek joan-etorriak egiteko erabiltzaile-kopurua murriztu zuten bidaiarien arteko segurtasun-tarteak gorde ahal izateko. Joan den abuztutik aurrera, baina, segurtasun-neurri horiek desagertu egin direla salatu du Imanol Erdaide Eskibil getxoztarrak. Erdaideri giltzurrun-gutxiegitasun larria diagnostikatu zioten duela urtebete, eta, ordutik, astean hirutan joan behar da Bilbora dialisia egitera, Osakidetzako itunpeko osasun-zentro batera, giltzurrun-transplantea egiteko zain dagoen bitartean. Bere etxetik Bilborako joan-etorri horiek egiteko Osakidetzaren anbulantzia-zerbitzua erabiltzen du getxoztarrak, bere gaixotasuna edo antzekoa duten beste hainbat pertsonagaz batera. Gogoratu duenez, arrisku handiko pazienteak dira horiek, «asko, gainera, adinekoak».

Azaldu duenaren arabera, anbulantzia-zerbitzurako azpikontratatutako enpresak 2020ko abuztuaren 16ko Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren agindu bati heltzen dio; 6. puntuari, hain zuzen ere, garraio publikoei aukera ematen diena murriztutako edukierarik gabe funtzionatzeko gehienez 9 lagunentzako zerbitzuetan, betiere erabiltzaileek maskara erabiltzen badute. Hala ere, deitoratu duenez, «ibilgailuek ez dute aireztapenik, eta ez dago ibilgailuaren desinfekziorik zerbitzuen artean». Hori dena dela eta, Getxoko bizilagunak uste du baldintza horiekaz anbulantziak kutsadura-foku bilakatzeko aukera asko dagoela

ERANTZUNIK EZ. Horren aurrean, getxoztarrak lau kexa aurkeztu ditu Osakidetzako Pazienteak eta Erabiltzaileak Atenditzeko Zerbitzuan: abuztuan, urrian, azaroan eta urtarrilean bana. Hala ere, oraindino erantzunik jaso ez duela deitoratu du: «Arartekora ere joan gara arazo horretan bitartekaritza egin dezan. Oraingoz, baina, ez dugu arrakastarik izan». ◂

Leioa Avanzada errepidea

Berrantolatzeko lanen bigarren fasea abiatuko dute otsailaren 11n

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Leioako Udalak Avanzada errepidea (BI-637) berrantolatzeko lanen bigarren faseari ekingo diote otsailaren 11n, eguenean. Lan horiekaz ibilgailuen zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna hobetu gura dute. Bigarren fase horretan, Leioako tunelaren irteeratik EHUko unibertsitatea eta Astrabuduko irteerara arte doan enbor nagusiaren eta alboko bideen arteko sarrera eta irteera konexioak berrantolatuko dituztela jakinarazi dute arduradunek.

Imanol Pradales Azpiegituretako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuak adierazi duenez, Bizkaiko Foru Aldundiak 2.662.000 euroko inbertsioa egingo du jarduera horretarako. Lanon iraupena 9 hilabeteko izango da, eta lanaldi horretan errepidea trafikora zabalik egongo dela adierazi du. Erantsi duenez, lanetako jarduera asko gauez egingo dituzte, etxeratze-aginduaren ondorioz ia trafikorik egongo ez denean.

Bere aldetik, Iban Rodriguez Leioako alkateak Udalaren eta Aldundiaren arteko lankidetza eskertu du, eta adierazi du lan horiek urrats berriak ematea ahalbidetzen diela, «Avanzadak Leioako herritarren osasunean eta bizi-kalitatean duen eragina arintzeko».

Hilaren 11n hasiko diren lan horietan, gaur egun enbor-errepidearen eta alboko-bideen arteko hiru konexioetatik lehena, tuneletik hurbilen dagoena, kenduko dute. Bigarren konexioa, gaur egun sartzekoa dena, enborretik alboko bideranzko irteera bihurtuko da, eta hirugarren konexioa gaur egun Avanzadara sartzeko bide bihurtuko da. ◂

Uribe Kosta Urtarrilaren 30ean hainbat ekimen egin zituzten

Trantsizio ekologikoari ekiteko, Aldaketaldia

Urtarrilaren 30ean eskualdeko herrietan hainbat ekintza antolatu zituzten krisi ekologiko eta soziala salatzeko, eta arlo horietan aldaketak eskatzeko

ANDER ZARRAGA

Pandemiaren eraginez ezarritako mugikortasun-mugek ez zituzten urtarrilaren 30eko Aldaketandiaren ekimenak geldiarazi. Hainbat erakunde sozialek deituta, EAEko herri askotan ekintzak egin zituzten, ekologikoki eta ekonomikoki jasangarriagoa den garapen bidezko baten alde.

Gure eskualdean, Berangon, Getxon, Sopelan eta Erandion egin zituzten ekintzak zapatu hartan. Besteak beste, Sukar Horia, GuNek eta Azkorri Bizirik deituta, 80 lagun baino gehiagok itsasadar azpiko autobidea ez egiteko eskatu zuten Getxon; horren ordez, «proiektu faraoniko eta antiekologikoen» aurrean, garraio publikoa eta bizikleta bultzatzeko eskaera egin zuten. Ildo berean, Sopelako Bareñon, hipermerkatuaren kontrako plataformak deituta, hainbat herritar batu ziren udaletxearen aurrean. Deitoratu zutenez, proiektu horrek kotxe pribatuen erabilera sustatu, herria zatitu eta ondare arkeologikoaren suntsipena eragingo ditu, besteak beste.

Bizkaia Zubian itsasadarraren azpiko tunela ez egiteko exijitu zuten. AZKORRI BIZIRIK

Gure eskualdean, askotariko ekimenak egin zituzten, hala nola Berangon, Erandion, Getxon eta Sopelan.

Erandion ere kutsaduraren aurkako mobilizazioak egin zituzten, Auzokoa Herrikoi Elkarteak eta Herri Bideak Kate Barik taldeak deituta. Erandioztarrek auzoetan zehar ibilaldia egin zuten Altzagaraino, eta, bertan, manifestu bat irakurri eta, banderolak erabilita, gizakate bat osatu zuten. Erandiotik ere pasatu zen Biziz Bizi elkarteak Bilbotik Getxora egin zuen bizikleta-martxa; horiek eskatu zuten ibai-ertzetik bidegorria egin dezaten.

Berangon, aldiz, Berango Lurraren Defentsan elkarteak deia egin zuen Otxabene ingurua zaborrez garbitzeko, berdeguneak defendatzeko errebindikazioa ere eginez.

Sopela Aurkikuntza arkeologikoak

Paleolitoko aztarnak topatu dituzte Bareñoko orubean

Erdi eta Goi Paleolitokoak izan daitezkeen silex-zatiak aurkitu dituzte supermerkatua eraiki gura duten lursailean. Lanak gelditu dituzte, aurkikuntza aztertu arte.

IKER RINCON · ANDER ZARRAGA ▶

Supermerkatua eraiki gura duten lursailean agertu dira aztarnak.

Iazko udaren amaieran, Maitane Larrea eta Ander Ugarte arkeologo sopeloztarrek azaleko azterketa bat egin zuten Bareño sektoreko lursailean; izan ere, gune horretan supermerkatu bat egiteko obrek hainbat aztarna azaleratu dituztela jakinarazi dute. Erdi edo Goi Paleolitokoak izan daitezkeen 21 harri-aztarna aurkitu dituzte, eta, ondorioz, eraikuntza-lanok atzeratu behar izan dira, behin-behinean, aurkikuntzaren nondik norakoak aztertu ahal izateko.

Ugartek jakinarazi duenez, «udan egindako lur-mugimenduek hainbat silex-zati lurpetik atera dituzte», eta, horren ondorioz, erraz topatu zituzten aipatutako harri-aztarnak. Horren berri emateko, txosten bat bidali zioten Bizkaiko Foru Aldundiari, eta, orain, aztarnategiaren balizko potentziala aztertu beharko du supermerkatua eraikiko duen enpresak.

«Udan egindako lur-mugimenduek hainbat silex-zati lurpetik atera dituzte»
ANDER UGARTE
ARKEOLOGOA

Horretarako, Suhar arkeologia-taldeak zundaketak egingo ditu aztarnategi arkeologikoa dagoen edo ez ziurtatzeko.

Aurkikuntza katalogatu barik dago, baina kontutan hartuta Sopelan, eta Uribe Kostan orokorrean, testuinguru arkeologiko aberatsa dagoela, adituek uste dute garrantzi handia izango duela inguruok aztertzea. Izan ere, ez da lehenengo aldia mota horretako aurkikuntzak ematen direla Bareño inguruan.◀

Sopela United Caps eta langileen arteko gatazka

United Caps enpresako langileek akordioa lortu dute

United Caps enpresak plastikozko tapoiak ekoizten ditu Sopelan duen lantegian, baina iazko azaroaren 20an lantegia Llagosterara (Katalunia) mugitzeko asmoa adierazi zuen enpresako zuzendaritzak. Ondorioz, lanpostua galduko zuten 37 langileek greba mugagabea hasi zuten azaroaren 24an.

65 egun greban eman ondoren, ELA sindikatuak enpresa-zuzendaritzagaz akordioa lortu du egoitza judizialean. Horren bitartez,

Greban 65 egun eman ondoren, langileek enpresaren leku-aldatzea bidegabea dela frogatu dute.

lekualdaketa bidegabea dela aitortu dute, eta langileek ohikoak baino kalte-ordain handiagoak jasoko dituzte leku-aldaketa eta kaleratze-bidegabeengatik: batez beste 100 egun lan egindako urte bakoitzeko.

Langileek ELA sindikatuaren babesa lortu zuten enpresak mugitzeko asmoa adierazi zuenean, horien iritziz ez baitzen lekualdaketa bat, «ezkutuko itxiera» baizik. ELAk erakundeen pasibotasuna ere kritikatu du, eta langileak babesik gabe utzi dituztela leporatu die.◀

Berango *Berango in memorian. Gerra Zibila, 1936-2020*

Gerrako memoriak liburu batean batu ditu Udalak

Aitor Miñambres Burdin Hesiaren Memoriaren zuzendariak hainbat testigantza eta irudi batu ditu 36ko gerra gogorarazteko liburua egiteko.

HIRUKA

Berango ez zen Gerra Zibiletik aparte geratu, eta horren testigantza batu du Aitor Miñanbresek *Berango in Memorian* liburuan: «Errepresioa eta gerrako jazoerak eurak beste herri batzuetan bezain gordinak izan ez baziren ere, Berangon inor ez zen bizi izan gerratik aparte, eta denei eragin zien zer edo zer galtzea», Miñambresek dioenez. Anabel Landa alkateak Udalaren izenean eskertu zuen Miñambresek «musu truk» egindako lan eskerga, joan den abenduaren 21ean egin zuten aurkezpenean. Era berean, azpimarratu zuen edizio-gastuak ordaintzeko Gogora Institutuak emandako laguntza.

Aitor Miñambresek azaldu duenez, besteak beste, liburuak gogora ekarri ditu 36ko Gerra hastean berangoztarrak ere mobilizatu egin zirela, eta Burdin Hesia eraikitzen parte hartzeaz gain, arma-lantegi bat altxatzeari ekin ziotela gaur egun Eroskiren hipermerkatua den horretan. «Eibarko industria atzeguardiara eraman zuten eta bertan hasi ziren ordezko fabrika bat egiten». Hala ere, lantegia martxan hasi baino lehen sartu ziren frankistak Berangora.

Hainbat testigantzak jasotzen dira liburuan, horien artean zuzenean bizi izan zituzten lau berangoztarrarenak (artean umeak ziren, jakina). «Burdin Hesia apurtu eta erretiran zihoazen gudari batzuenak ere badaude, frankistak ailegatu orduko azken orduak zelakoak izan ziren deskribatzen dituztenak», gaineratu du Miñambresek. Gerora, Flechas Negras Brigadako soldadu italiarrak egon ziren herrian, eta Franco bera eurakaz elkartu zen Berangon, zorionak emateko.

Bestalde, frontean hildako herriko zortzi semeren berri ematen du *Berango in memoriam* liburuak, eta desagertutako bat eta fusilatutako beste bat ere aipatzen ditu.

Anabel Landa alkatea eta Aitor Miñambres liburuaren aurkezpenean. BERANGOKO UDALA

Hizkuntzaren zalantzategia Eunate Muruaga

Bere, haren ala *beraren*?

***Bere, haren* ala *beraren*? Zein da egokia? Noiz erabili bakoitza? Zaila da erantzuten, ezta? Bada, bai, nahiko gai korapilatsua da gaia, eta oraingo honetan argi pixka bat ematen saiatuko gara arlo horretan. Ea lortzen dugun.**

Lehenik eta behin, argitu behar da Euskaltzaindiak ez duela araurik eman auzi honetan, baina gramatika eta estilo-liburuetan nabarmena da joera jakin bat hizkuntza bateratuari begira, eta atal hau joera hori ezagutzera bideratuko dugu. Has gaitezen adibide batekin: *Iratik Aneri deitu zion, eta* bere *etxera joan zen*. Zeri egiten dio erreferentzia *berek*? Aneren etxeari ala Iratiren etxeari? Ez dago argi. Horregatik, lehenengo eta behin kontuan hartu behar dugu hiru aukera ditugula 3. pertsonako genitiboa emateko: *haren, beraren* eta *bere*.

Haren forma soila da, eta aurreko esaldian aipatutako zerbaiti edo norbaiti egiten dio erreferentzia. Erreferentzia hori lehen aldiz egiten denean erabiliko dugu forma soila. Adibidez: *Josuk* haren *liburua aurkitu du* (Josu ez den eta aurretik aipaturiko norbaitena). *Bere*, aldiz, bihurkaria da, hortaz, subjektua NOR, NORK edo NORI kasuan dagoenean eta horri erreferentzia egin nahi diogunean erabiliko da: *Patxik* bere *(Patxiren) dirua ekarri du/ Patxi* bere *(Patxiren) etxean utzi dugu/ Patxiri* bere *(Patxiren) jarrerak egin dio kalte.*

Ondorioz, kontuz mota honetako esaldiekin: **Ni* bere *autoan etorri naiz (*haren*)/ *Gu* bere *lagunekin joan gara (*haren*)*. Horietan erreferentzia ez zaio subjektuari egiten. Subjektuak 1. pertsonan daude eta erreferentzia 3. pertsonako zerbaiti edo norbaiti egiten zaio, beraz, erreferentzia-bidea ez da egokia.

> Gaztelaniazko *su* forma itzultzeko beti erabili izan dugu *bere*; baina horrek askotan anbiguotasuna sortu izan du, eta ulergarritasuna oztopatu.

Hirugarren bat ere badugu; *beraren*, alegia. Azken hori *haren*en forma berretua edo indartua da, eta forma horrekin iradoki dezakegu hurbileneko hori dela erreferentea, eta ez lehenago aipaturiko norbait (*haren*). Esaterako: *Ane ohartu da Josuk* beraren *liburua aurkitu duela* (Josu ez den eta aurretik aipatu den edozein 3. pertsonaren liburua, eskuarki Anerena).

Horiek horrela, konturatuko gara *bere* erabiltzeko joera handia dugula, eta baliteke gogor samarra egitea *haren* erabiltzea. Izan ere, gaztelaniazko *su* forma itzultzeko beti erabili izan dugu *bere*; baina horrek askotan anbiguotasuna sortu izan du, eta ulergarritasuna oztopatu.

Azkenik, aipatu nahi dut batzuetan alferrik aritzen garela horrelako nahasteak argitu nahian forma bat ala beste aukeratu behar dugunean, eta kentzea izaten da egokiena (eta naturalena): ~~Bere~~ *etxera joan zen (se fue a su casa)/* ~~Bere~~ *jaka jantzi, eta.../ Kirola* ~~bere~~ *neurrian eginez gero...* Erraza eta argia, ez da hala? ◂

Gatz-ozpinetan Izei Azkue Astorkiza

Fruitu lehorrak, bakoitzak baditu bere onurak

Askotariko fruitu lehorrak ezagutzen ditugu, eta bakoitzak baditu bere onurak. Kontuak horrela, artikulu honetan jaki horietako batzuen ongarritasunak azalduko dizkizuet; ondoren, horiek hartu eta postre bat nola egin azalduko dizuet, pausoz pauso. Goazen bada!

Txikitatik gustuko izan ditut fruitu lehorrak, batez ere nik neuk jasotakoak. Aurreko artikulu batzuetan aipatutako Errioxako herrian hainbat intxaurrondo daude, gehienak ibaiertzean. Urtero ospatzen da gazta-azoka urriaren azken asteburuan, intxaurrak jasotzeko momentua hasten denean; egia esan, gazta eta fruitu lehorrak bikote ezin hobea osatzen dute.

Fruitu lehorrak mineral-iturri handia dira, eta B1, B3 eta E bitaminak ere ematen dizkigute. Koipe osasungarriak dituzte: omega 3 eta omega 6; proteina begetal ugari dituzte, kirola egin ondoren hartzeko aproposak direnak; eta zuntz asko dute. Hortaz aparte, fruitu lehor bakoitzak askotariko onurak ditu. Pinazi eta arbendolak hezurretarako onak dira kaltzio eta zink kantitateari esker. Pistatxoak, zuntz kantitate handiena dutenak, heste-funtzionamendurako bikainak dira; intxaurrek omega 3 iturri handia dute, eta bihotz-arazoak ekiditeko aukera ona dira; eta hurrak eta arbendolak, aldiz, dementziari aurre egiteko aproposak dira.

Onura horiek aipatuta, errezeta berri bati ekingo diogu. Oraingoan, hurrekin egindako postre bat ekarri dizuet lerrootara. Postre hori ostalaritza-eskolan egindako gozogintza ikastaroaren ondoren egin nuen ikasitako guztia praktikan jartzeko. Espero dut denontzako gustukoa izatea.

Osagaiak

10 arrautza, 250 gramo azukre, 250 gramo irin, 100 mililitro ur, 100 gramo azukre, limoia, laranja, 500 gramo esne-gain, 200 gramo txokolate, 300 gramo hur-krema eta hurrak, nahi beste.

TXOKOLATE ETA HURREZKO IJITO-BESOA. Hasteko, bizkotxoa egingo dugu. Horretarako, arrautzak, azukrea eta irina nahastu eta irabiatu-bikoitza egingo dugu, hau da: zuringoa irabiatu azukrearen erdiarekin, elur puntura arte, eta gorringoak beste erdiarekin, tamaina hirukoiztu arte. Gero, biak nahastu eta irina gehitu. Garrantzitsua da aire burbuilak ez apurtzea nahasterakoan. Labe erretiluan zabaldu nahasketa, eta laberatu 210 gradutan, 8 minutuz. Bitartean, bizkotxoa bustitzeko urazukrea egingo dugu. Horretarako, ura eta azukrea erabiliko dugu, baita limoi eta laranja azal pare bat ere: dena sutan ipini azukrea disolbatu arte.

Amaitzeko, txokolate eta hur krema egingo dugu: esne-gaina sutan ipini irakin arte, eta txokolatearen gainean bota dena ondo nahasi arte; ondoren, hur-krema gehitu eta hozkailuan sartu. Postreari amaiera emateko, bizkotxoa urazukrearekin busti eta krema zabaldu bizkotxotik. Dena biribildu eta kanpotik krema ipiniko dugu dena estali arte. Amaitzeko, nahi dugun hur kantitatea txikitu eta besoa apainduko dugu horrekin. Listo, on egin! ◂

Historiaren ganbara Iñaki Libano

Aguirremendi, duela 30.000 urteko Berango

Bizkaiko Historiaurreko etapa guztietako aire zabaleko aztarnategiak ditu Uribe Kostak. Horiek guztiak aurkitu dira jende «ez-profesionala»-k azken 50 urteetan egindako lanari esker. Horien jarduna beharrezkoa izan da Bizkaiko arkeologia eta Historiaurreko ondarea ezagutzeko.

Aurreko artikuluetan, aztarnategi horietako batzuei eta haien egileei balioa eman diegu. Esan genuen, halaber, haiei esker, gaur egun oso ikerketa garrantzitsuak egiten ari direla inguruotan. Azken 50 urteetako ikertzaile horietako batzuk honako hauek izan ziren: José de Saratxaga, Alberto Diez, Faustino Dublín, Isidro Martiarena eta lerrook sinatzen duena. Denok egin dugu ekarpen oso garrantzitsua Uribe Kostako Historiaurreko arkeologia ezagutzeko.

Aztarnategi horietako bat Alberto Diezek aurkitu zuen Berangoko Aguirremendi mendian, 1985ean, *Berango, 40.000 años de historia* liburuan aurkeztutakoa. Albertok silexezko material batzuk bildu zituen, Bizkaiko etaparik urrienak ezagutzeko argitaratu genuen artikulu batean protagonista izango zirenak. Pieza horietako bat, karrakagailu bat, zehazki, Jose Migel Barandiaranek aztertu zuen. Albertok Ataungo bere etxera eraman zuen 1987an, eta aita Barandiaranek Auriñaziar garaikoa zela ondorioztatu zuen. 1990ean, Albertok eskatuta, Aguirremendiren silexezko pieza horren marrazki bat egin nuen, aipatutako liburuan argitaratzeko.

Beranduago, 2010ean, Aguirremendiko materialak nire esku jartzeko eskatu nion Albertori, azterketa sakon bat egiteko; 2014ko Kobie aldizkarian argitaratu zen: «El yacimiento al aire libre del Paleolítico Superior inicial de Aguirremendi (Berango, Bizkaia). J. Ríos, A. San Emeterio, I. Libano, D. Garate, S. Vega eta A. Díez. Emaitzek ondorioztatu zuten pieza horiek Gravetiar garaikoak zirela.



Alberto Diezek Aguirremendin aurkitutako silexezko materialen marrazkia egin zuen Iñaki Libanok 1990ko urtarrilaren 12an. Hura publikatu zuen Diezek bere liburuan: *Berango, 40.000 años de historia*.

Berangoko Aguirremendikoa ehiztari-biltzaileen aparteko aztarnategi bat da; handik bisonteak, uroak edo oreinak igarotzen ikus zitezkeen. Puntu estrategiko horretatik, animaliok bilatu, eta, ondoren, zelatatze-tekniken bidez, ehizatzen zituzten. Horrela, «biziraupen-zirkulua» itxi zuten *Homo Sapiens*eko etapa batzuetan, non jardunbide horiek ziren garrantzitsuenak taldea babesteko. Aguirremendi duela 30.000 urteko kanpaleku txiki baten aparteko adibidea da, noizbehinka, denboraldi laburrean, erabili zena.

Aguirremendiko aztarnategiaren lanaren inguruan egindako laburpen txiki honetatik eskerrak eman nahi dizkiet Alberto Diezen eta lehen aipatutako lagun guztiei, Uribe Kostako Historiaurrea ezagutzeko egin duten lanagatik eta ekarpenagatik. Izan ere, gaur egun, aztarnategion egoera ezagutzearen eta gure eremuan hainbat jarduera gauzatzearen arduradun eta egileak dira horiek. ◂

Naturaren behatokitik Xabier Buenetxea

Otso iberiko *Canis lupus signatus*, babestuta

Espezie enblematiko horren babesa edo desagertzea gaurkotasun betean dago. Horren hilketa kudeaketa gisa arrazoitu dute inoiz, baina, orain, babestuta dago. Neurri horren ondorioz, ohitura batzuk egokitu beharko dira, batzuk arrazoirik gabe «tradiziozkoak» jotzen direnak.

Oinarri zientifikoak dituen kontserbagintzarako, otsoa espezie enblematikoa da; super-harrapakaria da, bakarrik biziraun daitekeena elikatzeko harrapakinak dituenean. Otsoak izaera ehiztaria dauka, nahiz eta sarraskijalea ere izan daitekeen. Ondo finkatutako talde batek ugalduko den bikote alfa bat edukiko du, erasoak antolatu eta taldea gidatzen duena. Normalean, gaixo dauden aleak aukeratzen dituzte (gaitzen hedapena kontrolatzeko baliagarria da hori), eta abereekiko erasoak bakarrik jazotzen dira horiek ondo jagonda ez daudenean, edo otso-taldeak egonkortasuna galdu duenean. Ehizaldiek eragiten dute azken egoera hori, eskopetariek aurrez agertzen zaizkien edozein ale tirokatzen dutenean. Alfa-otsoa hiltzen dutenean, taldea banandu egingo da, eta, gidaritzarik gabe, abereei egin diezaiekete eraso, harrapakin irisgarrienak direlako.

Abeltzaintza, bere aldetik, asko aldatu da. Usadioz otsoaren lurraldeetan artzain eta abeltzainek horiekin elkarbizitza onartzen dute. Ez dute gustuko, baina jardueraren parte dute. Lauzpabost mastin edo artzakur dituztela larreratzen dute, eta ardiek esparru itxi batean egiten dute lo; gainera, orain, artzain elektrikoarekin inprobisa daitekeena. Otsoek, txakurren usaina aditzen dutenean, liskarra saihestu eta nahiago izaten dute animalia basatiak ehizatzea.

Otsoak sartu diren lurraldeetako administrazioek tresna bitxi batekin egiten dute «kudeaketa»: otsoak hil.

Jakina, hori ezberdina da otsoa aspalditik hiltzen den tokietan, bertan abeltzainak animaliak mendian aske izaten dituztelako, eta aldizka igotzen direlako horiek zaintzera. Inguruabar horrek eragiten du «abeltzain» horien lan-jarduera nagusia beste sektore batzuetan ematea, eta ganadutegia, bizimodu bat baino, zaletasuntzat edo diru-laguntzak jasotzeko tresna izatea. Otsoak sartzen hasi diren lurraldeetako administrazioek ere tresna bitxi batekin egiten dute «kudeaketa»: otsoak hil.

Alternatiba litzateke mastinekin batera artzaintza tradizionalean aritzen dutenei zuzendutako diru-laguntzen banaketa bultzatzea, eta ez bakarrik mendiko abelburu kopuruari zuzentzea. Azken batean, gure mendiak leheneratzea artalde zainduekin, eta basurdeekin, oreinekin eta otsoekin, oreka naturalean.

Zaila da hain polemikoa den espezie bat, ikuspegi soziokulturaletik, ekonomikotik eta baita tradizional-mitologikotik ere, gure mendietan gailentzea, baina, agian, aldaketarako garaia da. Orain kontrol handirik gabeko ganadu soltea dagoen tokian, artalde bat ikusi beharko genuke, bere artzain eta mastinekin.◂

hiruka prentsa euskaraz, pentsa euskaraz

Hurrengo aldizkariak etxean jaso nahi izatekotan, urteko gutxieneko ekarpena 60 eurokoa izan beharko da, banaketa-gastuei aurre egin ahal izateko.

Hala, zure ekarpena moldatzeko, idatz ezazu mezua administrazioa@hiruka.eus helbidera; aborduko zure urtez urteko ekarpena 60 eurokoa baino gehiagokoa bada, zuzenean etxean jasoko dituzu HIRUKAk.

Zura eta ura

Konrado Mugertzak itsasoa izan du ispilu horren koloreak guri helarazteko. Koloreak, baina baita materialak ere. *Zura eta ura* lanaren helburua da egurra lantzearen garrantzia azpimarratzea, eta, modu berean, zuretik material sintetikoetara egindako jauziaren garrantzia azpimarratzea. Gure arrantza-portuetan berezkoak izan diren koloreak azpimarratu ditu, horiexek egiten gaituztelakoan garenak bezalakoak. Horretaz jardun eta hausnartzeko, irudioz gainera, askotarikoen idazlanak era batu ditu, hona hemen batzuk.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** · ARGAZKIAK: **KONRADO MUGERTZA** ▶










«Mendizaleontzako leku paregabea da hau»

IKER RINCON MORENO

Beti izan ditu gustuko Maria Soares Marin getxoztarrak bidaiatzea, mendia eta neguko kirolak; hori dela eta, unibertsitate-ikasketak amaitu eta, segidan, snowboardeko irakasle izateko titulua atera zuen. Hala, hainbat urtetan lan egin du Andorran, neguan, eta Txilen, udan, han negua denean. Ondoren, Suitzako Alpeetara salto egin zuen, orain hiru urte, eta hor lekutu da, «auskalo noiz arte». Dioenez, bere bizitzako denbora-tarte bat pasatzeko lekuen zerrendan zegoen herrialdeetako bat zen Suitza, eta, Txilen bere bikotekidea ezagutu ondoren, hura Ticinokoa denez, hara joatera animatu zen. Bertan italieraz jarduteak lagungarria izan zaio, oso arin ikasi zuelako hizkuntza; lanean, gainera, ingelesa darabilte, eta, orain, alemana ikasten saiatzen ari da, «izan ere, hori ez jakiteak mugatuta sentiarazten nau», dio getxoztarrak. Gaur egun snowboardeko irakasle eta marketinean lanean dabil bertan. Gainera, Perura egindako bidai batean sortu zuen Andesoul izeneko arropa banatzen dabil ere inguru horietan; alpakaz egindako jantziak dira horiek.

Mendirik mendi ibiltzen da Soares Suitzan, eta naturan barrena egun osoan ibili ondoren indarrak berreskuratzeko *pizzoceri* jatea bezalakorik ez dagoela dio. Izan ere, bertan mendizale asko bizi da, «mendiko bizitza da hemengoa; jende kirolari asko dago, neguan eskiatzen eta udan bizikletan dabilena». Mendi polit ugari topa daitezke inguru horietan, eta, denen artean, hurrengo lekuak gomendatu ditu: Andermatt, Disentis, Engelberg, Lucerna, Locarno, Lugano, Bellinzonako gazteluak eta Maggiako arana, besteak beste.

Historikoki ere leku esanguratsuak ezagut daitezke bertan, hala nola Airoloko San Gotardo pasabidea, antzinarotik ezaguna eta erabilia, Europako ipar-hegoa lotzen dituena. «Bide komertzial oso garrantzitsua da, eta, neguan, hura itxi eta tunela erabili beharra dago; munduko luzeena da». Andermatt inguruan ere jazoera esanguratsuak izan dira historian, berbarako, 1799ko Napoleonen tropen eta errusiarren arteko bataila.

Maria Soares Marin

Nongoa
Areeta, Getxo.

Adina
30 urte.

Zertan dabil
Lanean.

Noiz heldu zinen?
Duela hiru urte.

Noiz arte bertan?
Auskalo; ez daki.



Lurraldea
Suitza.

Azalera
41.285 km².

Hiriburua
Berna.

Biztanleria
8.500.000 (2018).

Hizkuntzak
Suitzak lau hizkuntza ofizial ditu: alemana, frantsesa, italiera eta, partzialki bada ere, erromantxea. Airolon, aldiz, hizkuntza ofiziala italiera da.

Moneta
Suitzako frankoa.

Lehen/Orain **Bizkaia Zubia, 1926**



ITURRIA: GETXOKO LIBURUTEGIAK

Uribitakora

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

TESTUA
Paule Ixiar Loizaga Legarra

DOINUA
Gure munduko bizimodua

ARGAZKIA
Hodei Torres

NOR izateko eskubidea

Urperatuko den ontzi edo
kamioi baten gurpila,
Bidaiatzeko bide seguru
baten faltan, jende hila.
Eguzkipean erdi zintzilik,
izan zitekeen Melilla...
bi esku hesi batean eusten
norbait ausarta, abila
beste aldean irudikatu
zaion bizitzaren bila.

Lortuko balu igarotzea
eta Europa zapaldu
zain dauzkan indar polizialekin
oraindik badu zer galdu.
Nahiz ta eskuan duen papera
asmo onenez zabaldu,
herri bezala beti ez gara
portatzen eskuzabal gu...
Gure artean NOR izateko
eskubiderik ez al du?

Internamendu zentro batera
han biolentzian heziak,
gero paperen tramiteetan
legearen gabeziak,
ta lanerako baimenik gabe
harrapatu pobreziak,
arrazakeri zantzu bakoitzez
ilusioak etsiak...
Oraindik asko dira igaro
behar dituen hesiak.

COVID iraunkorra: koronabirusaren sintomak joaten ez direnean...

Hainbat ikerketaren arabera, COVID iraunkorrak 10 gaixotik bati eragin diezaioke, emakumeei bereziki. Horietako bi dira Estibaliz Pozo eta Mónica Aguilera plentziarrak, eta, eurak bezala, koronabirusaren sintomakaz jarraitzen dutenei laguntzeko COVID Iraunkorra Uribe Kosta laguntza-taldea sortzea proposatu dute.

TESTUA, ARGAZKIA ETA INFOGRAFIA: **IKER RINCON MORENO**

Ia urtebete igaro da Estibaliz Pozo eta Mónica Aguilera plentziarrak koronabirusagaz kutsatu zirenetik. Azaldu dutenez, lehenengo olatuan gaixotu ziren, eta, gaitza gainditu duten arren, oraindino, sintomak pairatzen dituzte. Ez dute 2020ko hasieran zuten ongizate fisikoa berreskuratu; COVID iraunkorra (*long covid*, ingelesez) dute. Bidean, beldurra, ulertezintasuna, ziurgabetasuna, laguntza falta, desinformazioa... sentitu dute, eta ziur daude eurak bezala pertsona asko dagoela inguruotan. Hori dela eta, euren antzeko egoera batetik pasatzen ari diren gizon-emakumeei laguntza emateko laguntza-taldea proposatu dute. «Biok ditugu hainbat afekzio, COVID-19ak eragindakoak, eta oso mugatuta gaude. Baina gure laguntza, esperientzia eta ezagutzak eskaini nahi dizkiogu behar duenari, gure aukeren barruan, gurearen antzeko egoeran dauden inguruko pertsonei», azaldu dute plentziarrek.

Aguilera apirilean ingresatu zuten Urdulizko ospitalean, COVID-19ak eragindako pneumonia bilateral batek jota. «Hasiera batean, gaitz arina zenez, etxean egon nintzen isolatuta, protokoloak hala agintzen zuelako. Hala ere, gaixotasunak luze jo zuen, eta, ospitalean lekua zegoenez, bertan ingresatu ninduten, Aste Santuan», dio. Pozok, aldiz, etxean igaro zuen gaitza, bere familiako kide denakaz batera, isolatuta. Kasu horretan, baina, senarrak okerrera egin zuen, egun batetik bestera, eta Urdulizko suspertze-unitatean ingresatu behar izan zuten, 30 egunez. «Oso gogorra izan zen, egunero zer gerta zitekeenaren zain geundelako». Zorionez, den-denak irten ziren onik, «ez dugu hildakorik eduki», azpimarratu dute biek. Hala ere, ez da beti horrela izaten, eta inguruan ezagunak dituzte bidean sendi bat edo beste galdu dutenak.

Hilabeteak igaro dira gaitza gainditu zutenetik; hala ere, ez dira lehengoratu. «Askotariko probak egin dizkigute, eta dena ondo dagoela diote horiek, organikoki onik gaudelako. Arazoa da immunologikoki aldatu dela zerbait gure barrenean», dio Aguilerak. Ondorioz, askotariko sintomak garatzen dituzte aldian behin, «egunaren arabera gauza bati edo besteri eraso egi-

ten dio gaitzak», diote. Deskribatu dutenez, ohikoa den arnasteko arazoez gainera, bestelako afekzioak izan ditzakete gaixook, hala nola azalekoak, digestiokoak, bihotzekoak, giltzurrunekoak, neurologikoak, endokrinoak eta immunitarioak. «Inork ez digu azaldu zer gertatzen zaigun, zergatik gure gorputzak huts egiten duen, zergatik gaixotzen garen behin eta berriro. Ez dakigu noiz egongo garen osatuta; hori lortuko dugun ere ez dakigu», kexu dira plentziarrak. Diotenez, normala da oraindino ezjakintasuna nagusi izatea gaitz horren harira, oso berria delako. Hala ere, erantzunik ez jasotzeak «oso gogorra» dela nabarmendu dute Aguilerak eta Pozok. «Gainera, gizartean, orokorrean, gaitz horrekiko ulertezintasun handia dago. Oso bakarrik senti gaitezke askotan; estututa».

POSITIBO EMATEAREN GARRANTZIA. Plentziarrek diotenez, ez dira gutxi hilabeteotan asintomatiko gisa gaitza gainditu dutenak, baina gerora COVID iraunkorraren sintomak garatu dituztenak. «Orain dituzten sintomengatik dakite koronabirusa izan dutela euren sisteman, hilabeteak pasa ondoren», azaldu du Aguilerak. Biek azpimarratu dutenez, halakoetan zaila izaten da gerora iraunkortasunaren gaitza diagnostikatzea, aldez aurretik positiborik ez dutelako eman. Baina arazo hori ez da soilik asintomatikoakaz ematen; izan ere, pandemiaren hasieran, asko izan ziren gaixotasuna etxean igaro zutenak, PCR edo bestelako probarik egin gabe, Pozoren kasuan bezala, berbarako: «Ni etxean egon nintzen konfinatuta, eta maiatzera arte ez zidaten inolako probarik egin». Halako kasuek arazoak eragin ditzakete gerora sintomak garatu dituztenen kasuan. Alde batetik, mediku askok aurreko gaitz bategaz lotu ei dituztelako sintoma berriak, eta, bestetik, lan-ikuskaritzak daudenean zaila delako demostratzea arazook COVID-19ak eragindakoak direla. «Gu bezala dagoen jende asko bajan dago, eta, urtebete betetzean, lan-ikuskaritzatik pasa behar dira», azaldu dute.

Diotenez, egoera ezohikoa da, eta COVID iraunkorrak jotakoak ezin dira gaixo normaltzat hartu. Izan ere, gogoratu dutenez, 6/2020 Errege Lege Dekretuaren arabera, koronabirusak kutsaturiko langileei gaixotasun profesionalagatiko baja eman behar zaie. «Ez da bidezkoa 6 hilabeteko baja baten ondoren, kasuotan, inor kaleratzea, gertatu izan den bezala», deitoratu dute.

Halakoak ekiditeko, gaixotasuna gainditu izana demostratu beharra dago. Baina, zelan? Biek diotenez, analisiak daude koronabirusagaz lotura eduki izana demostratzen dutenak, ohiko azterketak (PCR eta antigenoak) balia-

COVID iraunkorrari buruz

Mediku Orokorren eta Familiakoen Espainiako Elka

Kaltetutako pertsonen profila

Adinen aldea parekoa da gizon eta emakumeen artean.



ko datuak

rteak (SEMG) egindako ikerketan oinarrituta



Ikerketen arabera, % 79 emakumeak dira, 43 urteko batez besteko adinagaz.



185

egun irauten dute batez bestean sintomek. Hau da: 6 hilabete baino gehiago

garriak ez direnean. «Nik Bartzelonan eskatu behar izan ditut analisiok, COVID-19ak eragindako pneumoniagatik ingresatuta egon arren, PCR-an positibo eman baina beste analisien arabera antigorputzak ez nituelako. Egindako probarekin, aldiz, demostratu ahal izan dut immunitate zelularra dudala. Immunologoak dio birusa jada ez dagoela nire organismoan, eta sintomak eragiten dituztela hantura handiegiak eta sistema immunologikoaren desorekak; beste mediku batzuek, aldiz, diote litekeena dela birusa bertan segitzea, eta horixe izatea iraunkortasunaren zergatia, kutsakorra ez naizen arren», azaldu du Aguilerak.

COVID IRAUNKORRA, AITORTUTA. Pandemiak aurrera egin ahala gero eta gehiago ikusten ari den errealitatea da COVID iraunkorra. Hilabeteek aurrera egin ahala, gero eta kasu gehiago ematen ari dira; askotarikoak izan daitezke, baina, adin ertaineko emakumeek pairatzen dute gehien, Mediku Orokorren eta Familiakoen Espainiako Elkarteak (SEMG) egindako ikerketa baten arabera. Denera, 200 sintomara arte deskribatu dira, eta, batez beste, paziente bakoitzak 32 izan ohi ditu. Munduko Osasun Erakundeak jomugan jarri du gaitz misteriotsu hori orain, eta nazioarteko adituen bilkura deitu zuen joan den otsailaren 9rako, horren nondik norakoak ikertzeari ekiteko.

LAGUNTZA-TALDEA, URIBE KOSTAN. Plentziarrek diotenez, iraunkortasuna dutenen egoera ez da batere erraza; hori dela eta, laguntza-taldea sortu gura izan dute. Euskal Herriko Covid Iraunkorra taldeko kide dira biak, baita Long Covid ACTS taldekoak ere. «Hala ere, zeozer lokalagoa egin behar dela uste dugu. Garrantzitsua da gertukoen artean laguntzea», ondorioztatu dute. Hala, proposamen xumea helarazten hasi dira inguruotako udaletara. «Gaixoontzako laguntza psikologikoa eta aholkularitza juridikoa eskaintzea beharrezkoa dela uste dugu». Une honetan, azaldu dutenez, harremanetan jarri dira Gorliz eta Sopelako udalakaz. Lehenengoek proposamena landuko dute, eta balizko lankidetza bat sustatzeko bilerak ekingo dituzte laster. Bigarrenen kasuan, aldiz, mozioa aurkeztu zen, baina ez zen onetsi, EAJ eta PSE-EEren kontrako botoakaz. «Harritu gaitu alderdi horien jarrera; erabakiaren arrazoiak zeintzuk diren jakin nahi ditugu, baina oraindik ez dugu erantzunik jaso», deitoratu du Pozok. Plentziako Udalari bilera bat eskatu diote, eta apurka-apurka, gainontzeko udalei helaraziko diete proposamena, baita Mankomunitateari ere. «Egoera hau luzerako doa, eta garrantzitsua da elkarri laguntzea». ◂

Konrado Mugertza Urkidi *Zura eta ura* proiektua

«Portuetan zuria da nagusi orain; baztertu da aniztasuna eta tradizioa»

IKER RINCON MORENO ▶

Argazkigintza eta literatura batuta, Euskal Herriko arrantza-portuen paisaiaren transformazioari buruzko proiektua zuzendu du Konrado Mugertzak: *Zura eta ura*. Dioenez, material sintetikoek egurra ordeztu duten neurrian, itsas portuek euren nortasuna galdu dute: eremuotan berezkoak ziren berde, gorri eta urdinak desagertu dira, eta zuria gailendu da.

Zer da *Zura eta ura* proiektua? Erakusketa bat baino gehiago da; bi dimentsio dituen proiektua da: alde batetik, fotografikoa, eta, bestetik, literarioa. Osagarriak dira biak.

Emaitza gogoeta koral bat dela diozu. Zein da hausnarketa hori? Proiektuan parte hartu dugunon artean egindako gogoeta bat da. Zeren inguruan? Bada, azkenengo hamarkadetan gure arrantza-portuetan emandako transformazioaren ingurukoa; zuraren ordez material sintetikoak agertu dira, hala nola beira-zuntza, poliesterra eta plastikoak. Eta, horiek sartu diren neurrian, eraldaketa nabaria da paisaian, kolorean batez ere. Kolorea galdu dute gure arrantza-portuek, baita testurak ere. Gaur egungo arrantza-portuak ikusita atzemango dugu den-denak kirol-portuen antzekoak direla: eremu-zuri bihurtu dira.

Zer esan gura du egurraren galera horrek? Arrantza-portuen deforestazio bat egon dela diogu, egurra galdu ahala aniztasunaren galera etorri delako. Zuritasuna da nagusi orain, desertifikazio kromatikoa dago.

Gogoeta, baina, ez da horretara mugatzen bakarrik, ezta? Ez; gure gogoeta apur bat harago doa. Galera bat dago, identitatearena, eta, zer esanik ez, ofizio baten galera baita ere. Azken finean, itsas arotzeria edo zurgintza galdu dira; itsas zurginak gaur egun, praktikan, ez dira existitzen.

Gogoeta hori eragiteko zeintzuk baliabide erabili dituzue? Alde batetik, argazkiak, gure arrantza-portuek zer ziren erakusteko; gehienak duela 20-25 urtekoak dira. Eta, bestetik, poemak, narrazio laburrak, saiakerak... Idazleek berariaz idatzitakoak. Gainera, itsas arotz ohi batek ere parte hartu du proiektuan, baita pintore eta paisajismoan aditu bana ere.

Erakusketaz gainera, lau hizkuntzetara itzulitako liburua argitaratu dute. HODEI TORRES

Egileak

- Konrado Mugertza.
- Humberto Astibia.
- Leire Bilbao.
- Itxaro Borda.
- Unai Elorriaga.
- Jesus Mari Lazkano.
- Anjel Lertxundi.
- Miren Agur Meabe.
- Felipe Murelaga.
- Jokin de Pedro.
- Jon Ruigomez.
- Kirmen Uribe.
- Arantxa Urretabizkaia.

Zeren arabera parte hartu dute ondoko zutabean daudenek proiektu horretan? Aspalditik buruan jira eta bira nuen proiektua da; nire aldetik, horrelako gogoeta txiki bat ekartzen nuen, eta argazkiak hori dira. Baina horri guztiari orain duen dimentsioa emateko, eta gauzak mamitzen hasi nintzenean pentsatu nuen bilatu behar nuela itsasoarekin eta arrantzarekin loturaren bat duten idazleak. Horiek, horrela, euren bizipenak, sentsazioak eta esperientziak kontatu dituzte, besteak beste.

Abenduan abiatu zen erakusketa Bilboko Itsasmuseum-ean, baina ibiltaria izango da, ezta? Bai, abenduaren 28an aurkeztu genuen, eta, momentuz, irail-urrira arte egongo da bertan. Gero, asmoa da Donostiako Aquarium-era eramatea, eta, ondoren, Baionako Euskal museora. Ameriketara ere eraman nahiko genuke, baita herrietan zerbait egitea ere. Bitartean, beste helburuetako bat liburua egitea zen, eta egin dugu. Dotorea da, hortxe dago denen eskura, testigantzak jasota, salgai. ◀

Berango Alberto Diez Saiz historiazalearen azken liburua

«Bizkaiko marea-errotarik zaharrena Plentziako Gazteluondo da»

Gure ibai guztiek dituzte errotak, baina haizea edo itsasaldiak baliatzen zutenak ere egon dira inguruotan. Horien bilduma egin du Alberto Diez Saiz gorliztarrak bere azken liburuan.

ANDER ZARRAGA ▶

Ikerketa- eta dokumentazio-lan luzearen emaitza da liburua. © ALBERTO DIEZ

Ibaietakoak bezain ezagunak eta ugariak ez izan arren, haizea eta itsasaldiak baliatzen zituzten errotak ere egon dira gurean. Hala baieztatu du Alberto Diez Saiz (Gorliz, 1933) historiazale eta idazleak *Los molimos de viento y marea vizcaínos* bere azken liburuan. Horren arabera, Bizkaian 23 marea-errota eta 11 haize-errota egon ziren XVI. eta XIX. mendeen artean; horietako zazpi gure eskualdean. Berangon bizi, baina Gorlizen jaio den 87 urteko historiazale eta idazlearen 15. liburua da hori, eta ibai-erroten ingurukoa ere prestatzen ari dela aurreratu digu.

Idazleak jakinarazi duenez, 40 urtetan batutako informazioa «ahalik eta modu zehatz eta argienean» argitaratzea izan da liburuaren helburua. Horren lana goraipatu du Alberto Santana historialari ezagunak: «Gai horren inguruan inoiz idatzi den lanik osatu eta txukunena da».

Lehenik, marea-errotak zerrendatzen ditu Diezen liburuak. Horiek itsasaldiek eragiten duten ur-mugimenduaz baliatzen ziren. Itsasgora zegoenean itsasoko ura urtegi batean biltzen zuten, gero, itsasbeheragaz, uraren maila bajatzen zenean, eta gurpilak libre gelditzen zirenean, gordetako ura hodi batzuetatik askatzen zuten, errotako gurpilak mugiarazita.

Diezek azpimarratu du eskualdeko eta Bizkaiko lehenengo marea-errota Plentziako Gazteluondokoa izan zela, 1506n eraikitakoa; gaur egun frontoia dagoen lekuan kokatuta zegoen. «Mota horretako errotarik zaharrena zen, eta ulergaitza egiten zait aditzea zergatik erabaki zuten hori eraistea. Gaur egun bizkaitarrok harro egoteko moduko harribitxi bat izango genuke», deitoratu du Diezek. Errota zegoen lekuan, horren inguruko informazioa duen panel bat eta haren gurpilak besterik ez dira gelditzen orain. Plentzian beste marea-errota bi egon zirela aipatu du Diezek: Ardanzakoa (1734) eta Errotabarrikoa (1854). Leioan ere Udondoko marea-errota (1548) egon zen, izen bera duen ibaiaren beheko aldean kokatuta zegoena.

Haize-errotek ibilbide laburra izan zuten

Aixerrotakoa da Uribe Kostan kontserbatzen den haize-errota bakarra. Errota horiek lehorte garaietan erabiltzeko eraiki ziren batez ere, gure inguruan ibaietako eta itsasaldietako errotak erabiltzen baitziren gehienbat.

Orain arte Bizkaian ezezagunak ziren marea-errota biren aurkikuntza ere nabarmendu du historiazaleak: Sestaoko Abinaga (1667) eta Deustuko Larrauri (1567) errotak, hain zuzen ere.

Berangoztarraren arabera, lehorte ezberdinek ibaietako uraren indarra gutxitu zutenean, errotariek bestelako energia-iturri batzuetara jo behar izan zuten, eta hala eraiki zituzten Bizkaiko lehenengo haize-errotak. Gure eskualdean hiru egon ziren, denak Getxo inguruan; gaur egun bakarra kontserbatzen da: Aixerrota (1725), alegia. Arnabarre (XVIII. mendea) eta Esazerrota (1854) ziren beste biak, baina gaur egun hondarrak besterik ez direla gelditzen jakinarazi du adituak.

Haize-errotek energia eolikoa baliatzen zuten hegalei eragiteko, eta, horrela, engranaje batzuen bitartez, alea ehotzeko harria mugiarazten zuten. Eraikin zirkularrak ziren, eta teilatua haizearen norabidearen arabera biratu zezaketen. Hala ere, Diezek dioenez, errotok bizitza laburra izan zuten, inguruotan ibaietako eta itsasaldietakoak lehenesten baitziren. ◀

Zinez diot ***Solo son peces***

Eraldaketa sozialaren alde

Teslem-ek, Dehbak eta Jadijak arrain-haztegi batean egiten dute lan. Sorterritik urrun daude. Ez daukate itsasorik. Arrainak, ordea, bai.

NEREA FALAGAN ▶

Orain bi urte, Al Borde Films ekoizlea eta Arabako SEADen Lagunen Elkarteko kideak Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetara joan ziren. Helburua zen urarekiko irisgarritasunaren garrantzia islatzen zuen dokumental bat grabatzea.

Ez da batere erraza gertutik ezagutzen ez den errealitate baten berri ematea; erronka handia da. Hala, lehenengo bidaian, taldeak dokumentazio-lana egin behar izan zuen: kanpamendukoak gertutik ezagutu, zine eskola eta, nola ez, liluratuta utzi zien arrain-haztegiak. Ana Serna zuzendariak behin esan bezala, «saharararrek magia egin dute». Hala da. Nork imajina dezake basamortu batean arrainak hazterik dagoela? Agerian da 40 urte baino gehiagoko egoera larriak zerbait irakatsi diela: erresilientzia. Horren inguruan doa, hain zuzen ere, *Solo son peces* lana. «Gainditze istorio bat da», Paula Iglesias zuzendariak aurkezpenean definitu zuenez. Teslem, Dehba eta Jadija-ren ekimena ezagutarazten da film horretan. Hiru emakumeek arrain-haztegi batean egiten dute lan, saharar errefuxiatuen kanpamentuetan. Sorterritik oso urrun daude. Ez daukate itsasorik. Arrainak, ordea, bai.

Solo son peces

Zuzendariak:
Ana Serna, Paula Iglesias.
Ekoizpena:
Olatz Alonso.
Argazkigintza:
Ana Serna, Iratxe Aranguren.
Antzezleak:
Dahba Mulai Sidhum, Jadija Nafe Naf, Teslem Sidiali.
Iraupena: 17 min

Dokumentalak arrakasta izan du; sariak jaso ditu ere. Aipatzekoa da Espainiako Zinemaren Sari Nagusia, Zinebiko 61. edizioan. Olatz Alonso ekoizlea pozik gelditu da Al Borde Films hautatzeagatik; izan ere, «beren ekarpena proiektuan hobezina izan da». Zorionez, halako kontaketek oihartzuna izan dezakete, eta film hori 35. Goya Sarietan izango da. Ez dakigu Goya bat lortzeak erreferendum eskubidea piztuko duen edo ez. Baina gauza bat argi utz dezakegu, Al Borde Filmsekoek diotenez: «Zinema askatasun eta eraldaketa sozialaren alde egiten duen esparrua da. Guk horrela ulertzen dugu».

Irakurrian ***Argiantza***

Apokalipsiaren jantzi xumeak

VHS. Hiru letra horien agerpenarekin hasiko da zinema aretoen gainbehera, eta, zabalpenez, kultur kontsumo kolektiboaren beherakada.

IÑIGO ASTIZ ▶

Mundu horren apokalipsia kontatzen du Pello Lizarraldek *Argiantza* eleberrian. Ordea, espanturik gabe, epikaren kontrapuntuan kokatzen du kontakizuna: jende arrunten bidez mundu oso baten azkena deskribatzen du.

1982ko irailean, enpresak Euskal Herrian dauzkan zinema aretoen egoera konprobatzeko konpromisoa hartu du Ramon Beitia kudeatzaileak, eta haren nondik norako geldoa jarraituko du irakurleak eleberriaren 84 orrietan.

«Urteko nobelarik borobilena» izendatu du Beñat Sarasola kritikari eta idazleak CTXT aldizkarian. Ezagun da, izan ere, idazlea euskal letretan, eta publiko zabalarentzako hain ezaguna izan ez arren, zaleen artean kultuzko idazlea dela esatea ez litzateke gehiegi. Lizarraldek 1978an argitaratu zuen lehen poesia liburua, eta zazpi eleberri eta ipuin liburu bi kaleratu ditu geroztik, denak zehaztasunaren aldeko eta enfasiaren aurkako apustu argiak bultzatuta.

Argiantza

Egilea:
Peio Lizarralde
Argitaletxea:
Erein
Urtea:
2020
Orrialde kopurua:
84
Jatorrizko hizkuntza:
Euskara

Kostaldeko hiri bateko aretoan hasten da kudeatzailearen bidaia, baina Euskal Herriko paisaia ia guztiak gurutzatuko ditu. Industrializatutako hiri bazterrak, eta baita Nafarroa hegoaldekoak diruditen mahastiak ere, baina sekula izen zehatzik aipatu gabe. Idazleak Berria egunkariari eskainitako elkarrizketan aitortu zuen, zabaldu ohi dena baino askoz ere zabalagoa baita euskal paisaia. «Berdearen hipertrofia eta mitifikazio bat dago». Eta, narrazioaren ikuspegi aldaketak egiteko duen finezia teknikoarekin batera, guneen eta giroen deskribapena da liburuaren lorpen nagusietako bat, airean hauts partikulen mugimendua eder deskribatzeraino, errepide bazterrean ahaztutako ostatu baten barrualdeko ilunpeetan. Pertsonaiek erabat ulertu gabe ere, gertatzen ari dena, gertatzen ari den bitartean erakustea da idazlearen lorpenetako bat, irakurleari bidezidorrik eskaini gabe. ◀

Txekoslobako

«Musikan denetarik probatu behar dela uste dut»

TESTUA: **ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO**
ARGAZKIA: **TXEKOSLOBAKO** ▶

Herri txiki honek urtez urte izan duen liskarretako bat izan dira festetako txosnetako musikaren nondik norakoak, eta are gehiago Txekoslobakok dakarrenarekin. **Pu**nk**ritanoek** eta haien lege zaharrak badute kritikatzekoa.

Punkean jaio, rapean bizi eta, oraingoan, reggaetoian murgildu. Zer dela eta? Bizitza honetan denetarik probatu behar dela uste duen horietakoa naiz; musikaren maitalea naiz, bere adierazpen guztietan. Rap ilunetik nator, eta zerbait animatuagoa egin nahi nuen. Jendea dantzan jartzeko irrikan nago.

Urteak musikaren munduan, proiektu ezberdinekin... Oso gaztetatik musikarik gabeko rap letrak sortzetik, gitarrarekin lehen urratsetara eta kuadrillako punk-taldea sortzera pasa nintzen (Libertad Kondizional). Musikalki haziz, talde berria (Astintzen) sortzea erabaki genuen, 2zio-rekin bateragarri egin nuena, nire lehengusu Odei Barrosorekin sortutako rap-taldea. Aldi berean, Kuenta Atras rock-taldean ere parte hartu nuen. Geroago, Ukan etorri zen, punk-rock-ska eta bestelako estiloak nahasten zituena. Faltan botatzen nuen gauza bakarra zen reggaetoia, eta hemen gaude.

TXEKOSLOBAKO

Reggaetoia

Denok dakigu reggaetoia Latinoamerikako kulturan askoz errotuagoa dagoela, eta betidanik letra matxistekin erlazionatu dela; horregatik, nire ustez, Euskal Herrian ez du arrakastarik izan. Baina horretarako dago Txekoslobako! Euskal reggaetoi antifaxista eta feminista bermatzeko!

Euskal Herritik kanpo arrakasta izaten ari zarela entzun dut. Hala da? Hori dirudi; Latinoamerikatik mezu ugari jaso ditut. Nire abestietan gaztelania eta euskara tartekatzen ditut, eta badirudi gaztelaniazko abestiek onarpen ona izaten ari dutela bertan.

Pandemiako egoerari buruz abesten entzun zaitugu azken bideoklipean. Zerk eraman zaitu horretara? Proiektua pandemia garaian sortu zen. WhatsAppeko taldean nire abestiak biltzen hasi nintzen, eta letretan nola sentitzen nintzen transmititzeko aprobetxatu nuen. Bakarrik bizi naiz, eta pandemia une zaila izan da. Sentitzen nuen guztia aireratu eta helarazteko modu bat zen. Orain arte letra pandemikoetan zentratu naiz, baina Txekoslobako borrokalariena iritsiko da.

Zer asmo duzu epe laburrera; urrezko lepokoekin ikusten duzu zure burua hemendik gutxira? Ez dut asmo zehatzik, konposaketekin, grabazioekin eta bideoklipekin gozatzea baino. Eta, aldi berean, aprobetxatu une zailotan zuzeneko ikuskizun on bat prestatzeko. Eta, urrezko lepokoak, ez dakit; zuzenekoetan sorpresak egongo dira seguru! ◀

Jon Lopez Leioa Waterpolo nesken taldeko entrenatzailea

«Gure asmoa ez da goraino heltzea; guk harrobiko talde bat izan nahi dugu»

Leioako waterpoloko nesken taldeak Ohorezko Mailara igotzea lortu du aurten, hori mugarri historikoa izan da harrobiko jokalariz osatuta dagoen talde leioaztarrarentzat.

ANDER ZARRAGA ▶

Leioa waterpolo nesken taldea da Ohorezko Mailako talde euskaldun bakarra. WLB

Maila gorenera heltzea lortzen duen lehenengo talde bizkaitarra da Jon Lopez entrenatzailearena. Hala ere, estreinatzea ez da erraza izan, eta taldeak gogor jardun beharko du maila mantendu gura badute, askoz ere baliabide hobeagoak dituzten aurkarien kontra eginez.

Nolakoa izan da Ohorezko Mailan estreinatzea? Historikoa izan da, lortzen duen Bizkaiko lehenengo taldea garelako. Azkenean, gu herriko talde bat gara, eta hori Ohorezko Mailan ikustea ez da ohikoa. Horretan, fitxaketak egiten dituzten talde handiak daude, eta instalazioen aldetik ere gu baino hobeto hornituta daude; beraz, hori guztia ikusita, historikoa izan da. Ekipo berezi bat gara Ohorezko Maila horretan. Hala ere, gure arazorik nagusiena entrenatzeko instalazioakaz daukagu, igerilekua txikia delako eta ez garelako horren erabiltzaile bakarrak.

Nola dago osatuta taldea? Gehienak leioaztarrak edo ingurukoak dira, eta uste dut guztiak pasatu direla waterpolo eskolatik. Beraz, zeharo harrobiko taldea garela esan daiteke; guk taldea horrelakoa izan behar zuela ere uste genuelako. Gure asmoa ez da inoiz izan goraino heltzea; guk harrobiko talde bat izan nahi genuen. Gure indargune nagusiena da, ia lagun talde baten modukoak garelako eta denek oso ondo elkar ezagutzen dutelako.

Orain arte emaitza kaskarrak izan dituzue igoera gogorra egin zaizue? Bai, azkenean, Ohorezko Mailan jokatzea oso zaila da, lehiatzeko propio eginda dauden taldeen aurka ari zarelako. Fitxaketak ere egiten dituzte. Gainera, gure igerilekua ere oso txikia da, eta ordutegia daukagu hori erabiltzeko. Horrek guztiak gure jardunerako apur bat mugatu egiten gaituela uste dut.

Maila altuko taldeen aurka

«Fitxaketak egiten dituzten talde handiak daude Ohorezko Mailan, eta, instalazioen aldetik ere, gu baino hobeto daude hornituta»

Waterpoloarekiko zaletasuna dago inguruotan? Uste dut azken urteetan gora egin duela. Leioan, batez ere, uste dut oso paradigmatikoa dela, azkenean herri eta igerileku txikian, waterpolo talde nahiko handia sortu delako. 200 fitxatik gora eduki genituen pandemiaren aurretik.◀

Ignacio Corcuera «Livingstone» eta Iker San Vicente Dakar Classic-eko partaideak

«Hiru mirari gauzatu ditugu Dakar horretan»

Duela 40 urte Paris-Dakar lasterketa ospetsua irabazi zuen auto berarekin Saudi Arabiako basamortuko hareak zeharkatzea zen haien helburua. Esperientzia ikaragarria izan dela diote biek, hasieratik amaierara arte.

ANDER ZARRAGA ▶

Dakar Classic sortzeko ideia Erandioko Retromobile tailerrean jaio zen. HODEI TORRES

Motorraren munduak batu zituen Ignacio Corcuera *Livingstone* gidaria eta Iker San Vicente kopilotua; anbulantzia-gidaria eta ibilgailu klasikoen ordezko piezen saltzailea, hurrenez hurren. Aspalditik ibili izan dira biak rally eta auto-lasterketen munduan. Urtarrilean, baina, erronka titaniko bat burutzea lortu zuten: duela 40 urte Paris-Dakar lasterketa irabazi zuen auto beragaz, Volkswagen Iltis bategaz, Saudi Arabiako basamortuko hareak zeharkatzea.

Nola jaio zen proiektua? Hasierako ideia duela hiru urte bururatu zitzaigun, hemen: Erandioko Retromobile tailerrean. Lur orotako ibilgailuen zale batzuen artean Paris-Dakar lasterketa irabazi zuen lehenengo ibilgailuaren parekoa erabilita probara bueltatzea otu zitzaigun; 1980an Volkswagen Audi Iltis batek lortu zuen garaipena. Guk Afrikako Dakarrak gogoratu gura genituen, makina mitiko eta kondairetako gidari horiekaz. Araudiak ez zigun ibilgailu horregaz parte hartzen uzten, baina guk tortillari buelta eman eta maila klasiko bat bultzatzen hasi ginen; hau da: 20 urte baino gehiago duten autoentzako lasterketa paralelo bat. Eta lortu egin genuen ere.

Nolako ibilgailua da Iltisa? Jatorri militarra duen ibilgailua da; 1980an matrikulatua eta ia pieza guztiak jatorrizkok dira. Gezurra dirudien arren, gure ibilgailuak 75 zaldi besterik ez ditu, eta 400 dituzten makinen parean ibili gara. Oso arina da, beraz, ez zen dunetako harean hondoratzen, eta oso ondo moldatzen zen edozein motatako bideetan. Makina ikaragarria da.

Nolako da bizikidetza Dakar batean?

«Elkarbizitza berebiziko kontu bat da. Beste pertsona ezagutzen ez baduzu txinpartak aterako dira, tentsio handia dagoelako, eta biok erratuko garelako. Orduan, bestearen akatsak onartzea oso beharrezkoa da. Biok aspaldi ezagutzen genuen elkar, eta hainbat esperientzia izan ditugu elkarrekin. Beraz, elkarren arteko konfiantza handia dugu»

Nolakoa da duela 40 urteko auto batean Dakar batean lehiatzea? Gaur egun, milioi bat euroko autoakaz konparatuta ez da hain erosoa, baina, bestalde, oso ibilgailu sinplea da. Iraunkorra izateko egina dagoen ibilgailu bat da; beraz, oso aproposa da Dakar baterako.

Zelakoa izan da lasterketa? Dakar bat beti izango da gogorra, hori delako bere filosofia; bi aste irauten dituen erresistentzia-lasterketa bakarra da. Guk etapa batzuetan 15 ordu eman ditugu gidatzen. Dena den, ibilgailua oso ondo moldatu da, eta ez dugu inolako arazorik izan. Hori bai: autoaren barrualdeak harez beteta bukatu zuen lasterketa.

Nola uztartzen dira anbulantzia gidatzea eta rally batean parte hartzea? Dakar baterako entrenatzeko asko balio du, ez dakizulako noiz izango duzun atsedenaldi bat. Pertsona baten bizitza salbatzeko gidatzen duzu goizaldeko orduetan, beti egon behar zara prest, eta exijitzen duen arreta horrek asko laguntzen du lasterketarako baita ere. ◀

Kutxa teknologikoa **Adizkinator**

Euskal aditzak jokatu eta bilatzeko aplikazioa, esku-eskura

IKER RINCON MORENO

Adizkinator izeneko doako aplikazioa sortu du Uribe Kostako AEKko euskara irakasle batek. Tresna horrek eskaintzen ditu Euskaltzaindiak euskara baturako onartu dituen adizki laguntzaile eta trinko guztien modu neutroak, baita hikako forma alokutiboak ere. Hala, erabiltzaileek aditzak jokatu eta bilatzeko aukera izango dute modu erraz eta azkarrean app hori erabilita.

Adizkinator doako aplikazioa da, euskaldunei eta euskalduntze-prozesuan daudenei zuzendutakoa. Uribe Kostako AEKko euskara irakasle batek sortu zuen hori iaz, ikasleen beharrei erantzuteko; baina, azkenean, aurten, 2021ean, argitaratu da. Azaldu duenez, horren helburua da bilatu gura den aditzaren forma «berehalakotasun handiz» lortzea. Horretarako, adizki den-denak (hikako alokutiboak eta trinkoak barne) bildu dira tresna horretan, eta bilaketa bidea erraztu da terminologia egokituta.

Aplikazio berritzaile hori ezagutzera emateko, bideo bat kaleratu dute. Horretan, fikziozko istorio bat mahai-gaineratu dute: Joxean hiztun gaixoaren bizimodua, aditzik gabe bizitzea zein gogorra den erakusten duena.

Horoskopoa

Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)
Plater berriak probatzeko garaia da. Samurtu mingaina, eta ekin esperimentatzeari. Etxe-kideren bat erabil dezakezu kui legez.

Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)
Postariak ekarri beharreko gutunak nekez helduko dira, etxera txirrina jotzen dutenean atea irekitzen ez baduzu.

Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)
Apustuak apustu, beti Athleticen alde egiten ohi duzu. Damutzen hasia zara, baina nola aitortu horrelakorik?

Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)
Aste zoriontsua izango da. Ez, ez espero albiste handi eta liluragarririk, ezta zortearen bolada pozgarriak ere. Xehetasunetan murgildu.

Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)
Oporrak otsail amaieran? Arraro, baina, zergatik ez? Ahal baduzu, behintzat, zuk zeuk aukeratu noiz disfrutatu.

Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)
Dena ondo dagoenean agertu behar da betiko morroi hori, zuk zein den ondotxo jakin badakizuna. Ohi legez, izorratzeko dator, noski.

Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)
Azterketak amaitu eta ia denak gainditu dituzu. Bejondeizula! Maiatzerako badakizu, ez zaitzala loak hartu eta has zaitez lanean berehala.

Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)
Pozarren bizi zara, baina, kontu korronteari begiratu al diozu? Gabonen eta beherapenen ondoren, dardarka daukazu gaixoa.

Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)
Gogotsu hasi zenuen urtea, egunero kirola egiten eta erretzeari utzita. Baina, urtero legez, ezer gutxi iraun dizu asmo onak.

Meta
(Irailak 17-Urriak 16)
Abiadura ez da kontu ona, neurriz ez bada. Ahalegindu zure erritmoa lasaitzen, gorputzak eskertuko dizu eta.

Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)
Bat-batean sukaldaritzaz ezagupen baino jakin-mina gehiago duen lagun batek bazkaltzera gonbidatzen bazaitu, mesfidantzaz hartu.

Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)
Berriro ere pentsatu eta aztertu zure mugimenduak izoztu baino lehen. Non demontre sartu zenuen edredoi nordikoa?

Desagerraraz itzazu zure barizeak berme guztiekin Dermitek klinikan

Goi-mailako profesional kualifikatuek osatzen dute Dermitek klinikako langile-taldea. P.S.E 144/16

Dermitek-en oso ziur gaude zain barneko laserraren eraginkortasunaz, eta, horregatik, urtebeteren buruan barize bera ateratzen bazaizu, tratamendua errepikatuko dizugu doan. Hala ere, tratatutako barizeen % 99,6 ez dira berriz ateratzen: horiek dira Dermitek klinikak lortutako emaitzak barizeak zain barneko laserrarekin tratatzean.

Dermitek 1999ean hasi zen armiarma baskularrak edo barize finak tratatzen, eta, Estatu Batuetan prestakuntza jaso ondoren, barize lodiak ere zain barneko laserrarekin tratatzen hasi ziren 2010ean. Harez geroztik, 2.300 kasutik gora tratatu dituzte. Bertako Flebologia Unitatea diziplina anitzeko talde batek osatzen du: medikuak, erradiologoak, kirurgialari bat, erizainak eta klinika laguntzaileak, besteak beste.

Dermitek klinikako talde medikoak nazioarteko hainbat kongresutan parte hartu du, puntako profesionalak egiten ari direna bertatik bertara ezagutu eta lortutako emaitzak partekatu eta alderatu ahal izateko. 2012an aurkeztu zen Dermitek-en zain barneko laserrarekin tratatutako lehen 50 pazienteen azterlana. Gainera, talde horrek 2019an aurkeztu zuen azterlan sarituan aurki daitezke 1.500 kasuko emaitzak, urtebeteko jarraipen-prozesuarekin.

Zain barneko laserra da nazioarte-mailan sarrien hautatzen den tratamendua (Gold Standard): Amerikako eta Europako erakunde zientifiko nagusiek tratamendu hori gomendatzen dute safenektomiaren (kirurgia tradizionala), N Butil zianoakrilatoaren edo apardun esklerosiaren aurretik.

Zain barneko laserraz gain, Dermitek-ek beste tratamendu hauek ere eskaintzen ditu: N Butil zianoakrilatoa (itsasgarri gisa ezagutzen dena), ekografia bidez gidatutako apardun esklerosia eta kirurgia. Kasu guztiak ez dira berdinak, eta beharrak ere desberdinak izan daitezke. Esaterako, N Butil zianoakrilatoaren aukera egokia da gazteentzat, barize gutxi dituztenentzat edo orratzei beldurra dietenentzat. Tratamendu horrek hainbat azterlanen bermea jaso du, eta emaitza onak eman ditu bost urtera, baina oraindik ez da lehentasunezko tratamendutzat jotzen. Tratamendu horren aurretik ezinbestekoa da itsasgarriarekiko alergia posibleak antzematea; izan ere, substantzia hori ez da desagertzen eta tratatutako zainean geratzen da. Tratamendu horretarako ez da ziztadarik egin behar, azkarragoa da, eta, kasu gehienetan, ez da beharrezkoa konpresio-mediak erabiltzea.

Iraganean, kirurgia tradizionala jaso duten pazienteen kasuan, edo laserrarekin tratatu ezin diren oso zain bihurriak dituzten pazienteen kasuan, ekografia bidez gidatutako apardun tratamendua izan ohi da aukerarik egokiena.

Zainetako ultzerak

Barizeak tratatzen ez badira, azkenean, ultzera bat sor dezakete orkatilaren barnealdean. Dermitek-en, urte luzeetako ikerketa-lanari esker, hogei urtetik gorako bilakaera zuten ultzerak ixtea lortu dute. Ultzera horietako gehienek ospitaleetan aurretiazko tratamendua jaso zuten arrakastarik gabe, eta, zenbait kasutan, azal mentu saiakerak ere izandakoak ziren. Ultzera eragiten duen jatorria tratatuz gero, ultzera ixtea eta hark dakartzan mina eta ezintasuna desagerraraztea lortzen da. Dermitek klinikak izandako emaitza onak aurki daitezke 2017. urtean argitaratu zen azterlan batean.

DERMITEK

Uribitarte pasealekua 11-12. 48001 BILBO

(Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefonoa: 944 010 110

Astelehenetik barikura: 08:30-20:00
Zapatuetan: 09:00-15:00

02 ABIADURA

Obturadorea eta abiadura

Gure argazkietan denbora eta mugimendua nahieran islatzeko obturadorea kontrolpean eduki beharko dugu; hona hemen horren ezaugarri nagusiak.

Obturadorea

Kameraren barruan kokatuta dago, haren «gorputzean», sentsorea eta objektiboaren artean. Normalean, gortina batzuk dira, gora eta behera mugitzen direnak; gillotina moduko bat, eta ireki eta ixten diren tarte horretan, argia pasatzen uzten dute.



Argiaren sarrera

Argazkiak sentsorean islatzen diren irudiak direla esan dugu, eta, hori gertatzeko, argia sentsorean jo behar du. Hauxe da obturadorearen lana: argiak zenbat denboran sartzen den sentsorera.

Urarekin egiten da konparaketa askotan: imajinatu kubo bat dela gure sentsorea, eta iturria zenbat eta denbora gehiago zabalik egon, ur gehiago helduko dela kubora. Aldiz, oso denbora laburrean zabaltzen badugu, ur gutxi helduko dela. Hori da obturadorearen lana: denbora kontrolatzea; zenbat denboran argia pasako den kontrolatzea, hain zuzen ere.

Mugimendua

Denbora tarte horretan ez da bakarrik argi gehiago edo gutxiago sartzen, sentsoreak kamera aurrean gertatzen dena jasotzen dago. Adibidez, 2 segundoko abiadura erabiltzen badugu, mugimendu hori harrapatuko du. Abiadura oso azkarra bada, 1/4000 esaterako, istant hori izoztuko du, momentu txiki hori bakarrik hartuko du. Ea adibide batzuekin hobeto ulertzen dugun:

1- Ur-jauzi edo erreka baten uraren mugimendua islatu nahi dugunean, obturadorearen abiadura baxua izan beharko da, gutxienez segundo bi egon beharko da zabalik, mugimenduan dagoen ura zeta-efektuarekin agertzeko.

2- Oso azkar mugitzen den txoria, ur-tanta bat, kirolari bat... Halakoak izoztuta edo mugimendu zehatz batean harrapatzeko, abiadura azkarra erabili beharko dugu, 1/500-tik gora askotan. Baina, halakoak egiten ditugunean, argi asko eduki behar dugu, hain denbora laburrean oso argi gutxi sartuko delako sentsorera.





Pausoak

Zelan neurtzen da obturadorearen abiadura? Bada, segundo bat oinarri hartuta, eta horren zatiketak eginda. Hau da: 1 zenbakia ikusten dugunean, 1 segundo esan nahi du, segundo batean zehar obturadorea zabalik dagoela. Orduan, segundoko 1 /500 abiadura, azkarra da, eta 5 s baxua. Hori kontutan hartuta, pauso bat igo edo jaitsi behar dugula esaten dugunean, 1/15etik 1/8ra pasatu behar garela esan nahi du, edo 1/500etik 1/250era.

Horiek dira pausoak: obturadorearen abiadura ezberdinen artean dauden tarteak. Batzuetan, kameraren arabera, pauso osoak izan beharrean, pauso erdiak edo herenak topa ditzakegu; hau da, pauso oso horiek, erditik edo hirutan zatituta.

Adibidez: 1/500-1/400-1/320-1/250-1/200-1/160-1/125

Lausoa irten da?

Abiaduraren arabera, tripode bat edo egonkorra den oinarri bat beharko dugu. Kamera mugitzen badugu 3 segundoko argazkia egiterakoan, dena lausotuta agertuko da. Horretarako, tripode batean jarri beharko dugu kamera, eta, estatiko dagoenez, kanpoko mugimendua islatuko du bakarrik.

Orokorrean, esaten da:
- 1/125 abiadura estandarra da.
- 1/30 segundo beherakoak, abiadura baxuak dira (tripodea erabili).
- 1/500 gorakoak oso azkarrak dira.

Abiadura eta obturadorea ondo ezagutzen ditugunean baliabide artistiko gehiago edukiko ditugu gure argazkiak planteatu eta egiterako orduan. Bada, has zaitezte probatzen.

Hurrengo hilabetean:
Diafragma: argia eta desenfokea.

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:

Margotu

Engainagarria

Bost zati hauetatik bakarra dago margotu behar duzun irudi horretatik hartuta. Zein da? Margotu ezazu zati hori ere.

Hauxe parea

Arrain hauen artetik bi berdin-berdinak dituzu (tira, agian bat bestea baino handiagoa, baina gainontzean berdin-berdinak). Zeintzuk ote dira?



Zu bai hamalau!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamalau dira guztira.





Nola ligatzen dute gazteek pandemia garaian?

JUAN *DOMIN*
LEIOA

Lagunen bitartez. Norbaiten etxean batzen gara, eta pelikulak eta horrelakoak ikusten ditugu, eta zerbait hartzen dugu. Horrela ezagutu ditut neskak pandemia garaian.

AINHIZE CLARAMONTE
LEIOA

Ez daukat ez mutil-lagunik ezta neska-lagunik ere, baina ez dut ligatu ezta. Orain, ligatzea ezinezkoa da. Agian unibertsitatean, baina ez dago aukera askorik.

NEREA ANTON
BILBO

Nik harreman bat neukan, eta pandemian zehar bukatu zen, beraz, ez ditut izan ligatzeko gogo askorik. Baina, bestela, sare sozialak oso baliabide ona direla iruditzen zait, batez ere Instagram.

MIREN ARRIETA
DONOSTIA

Niretzat pandemia oso egokia izan da, nagia ematen zidalako ligatzeak; horrela ez dago aitzakiarik, eta ez dugu ligatu behar. Oso pozik nago bakarrik, beraz, pandemia eskusa perfektua izan da niretzako.

MIKEL IBARRA
LEIOA

Nik neska-laguna daukat duela urte bat eta erdiz. Baina badakit nire lagunak Instagrametik eta antzeko sare sozialetatik ibili izan direla ligatzen. Agian, norbaitek argazki bat igotzen du eta beste batek iruzkina jartzen dio, eta hor hasten dira elkarrekin berba egiten.

MARIA BORRUEL
BARTZELONA

Ezin izan garenez atera ez dut ezer ligatu, gainera, ez nuen nahi, pandemiarekin elkartzea ez delako oso erosoa. Sare sozialak ez zaizkit horrenbeste gustatzen, nahiago dut jendea zuzenean ezagutu. Beraz, jendea ezagutzeko egoera hobetzera itxarongo dut.

NAIARA GARCIA
DONOSTIA

Harreman batean egon naiz, baina elkarrekin ez egotearen kontu horrekin guztiarekin alde batera uzten joan ginen. Zuzenean elkarrekin ez egotean harremana hondatuz joan da, beraz, ez dut ligatzeko gogorik izan.

IKER IDIONDO
GETXO

Badakit lagunek Instagram bitartez ligatzen dutela, aurretik ezagutzen duten norbaiti idazten edo sare sozialetako argazki zaharrei *like* ematen. Hala. beste pertsonaren arreta deitzen dute, badakitelako norbait beraien profila ikusten ibili dela.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa
Non dago?

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, Oveja Creativa argitaletxearen liburu-sorta irabaz dezakezu.

Bi liburuez osatutako bilduma irabazi gura baduzu, bidali erantzuna otsailaren 28a (domeka) baino lehen HIRUKAren webguneko zozketen atalera:
· www.hiruka.eus/zozketak

Saria

Oveja Creativaren liburuak

Martin eta Learen abentura zoragarriez gozatu ahal izango dute etxeko txikienek.

Zozketa
Kontzerturako sarrerak

Amak trikiti- eta ahots-laukoteak bere jai-musika gerturatuko du Getxoko Muxikebarri Antzokira martxoaren 6an, zapatuan. Kontzerturako lau sarrera bikoitz zozkatuko ditugu.

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 28a (domeka) baino lehenago eman izena HIRUKAren webguneko zozketen atalean:
· www.hiruka.eus/zozketak

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

BERTOKO GASTRONOMIA ZURE ETXEAN

Alferrekoa litzateke orain azaltzen hastea zer-zelako eragina izan duen, azken asteetan, pandemia dela eta ostalaritza itxi izanak. Egoeraren larriari zelan edo halan aurre egiteko, etxera eroateko janaria prestatzen jardun dute gure inguruko negozio askok, ondo jakina denez, eta laguntza eman guran, Uribe Kostako udal gehienek gidak argitaratu dituzte, mota horretako zerbitzuak eskaintzen dituzten taberna, jatetxe eta enparauen berri emateko herritarrei. Hemen duzue gida horien bilduma, ostalaritza berriro zabaldu izanagatik oraindino ere lagungarri izango zaizuelakoan.

ERANDIO

www.irekia.erandio.eus

SOPELA

www.sopelazabalik.eus

GETXO

www.getxo.eus

LEIOA

www.behargintzaleioa.net

BERANGO

www.berango.net

PLENTZIA

www.plentzia.eus

GORLIZ

www.visitgorliz.eus